Angeluen arteko kenketa

Angeluen arteko kenketa egiten

ERA GRAFIKOAN



$\hat{C}$ angelua $\hat{A}$-ren eta $\hat{B}$-ren arteko kendura-angelua da.

$$\hat{C} = \hat{A} - \hat{B}$$

ZENBAKIZKO ERAN

$$\begin{array}{rrr} 52^\circ & 15' & 22'' \\ -\ 22^\circ & 30' & 45'' \\ \hline \end{array}$$

22''-ri ezin dizkiogu 45'' kendu. Horretarako, kenkizuneko minutu bat segundo bihurtuko dugu.

$$\begin{array}{rrr} 52^\circ & 14' & 82'' \\ -\ 22^\circ & 30' & 45'' \\ \hline & & 37'' \end{array}$$

14'-ri ezin dizkiogu 30' kendu. Horretarako, kenkizuneko gradu bat minutu bihurtuko dugu.

$$\begin{array}{rrr} 51^\circ & 74' & 82'' \\ -\ 22^\circ & 30' & 45'' \\ \hline 29^\circ & 44' & 37'' \end{array}$$

Ariketak

IKASITAKOA ERABILI

1 Marraztu koadernoan $\hat{D}$ angelua, $\hat{M}$ eta $\hat{N}$ angeluen kendura-angelua.

2 Kalkulatu zenbakizko eran $\hat{B} - \hat{C}$.



Gogoratu

1 gradu = 60 minutu

1° = 60'

1 minutu = 60 segundo

1' = 60''

3 Kalkulatu zenbat den honako angelu honen zenbakizko balioa:

$\hat{M} = 35° \ 24' - 23° \ 32'$

4 Marraztu koadernoan kendura-angeluak, eta adierazi zer neurri duten.

$\hat{A} - \hat{B}$ $\hat{B} - \hat{C}$ $\hat{A} - \hat{C}$

A - B	
B - C	
A - C	

5 Egin kenketak:

$\hat{D} = 54° \ 23' \ 43'' - 28° \ 32' \ 20''$

$\hat{C} = 66° \ 45' \ 10'' - 35° \ 40' \ 28''$

D	
C	

AURRERA

6 Egin beharrezko unitate-aldaketak, eta kalkulatu.

$\hat{A} = 24° \ 10'' - 15° \ 10' \ 25''$ $\hat{C} = 45° - 28° \ 15' \ 45''$

$\hat{B} = 36° \ 14' - 25° \ 20' \ 36''$ $\hat{D} = 56° \ 22' \ 45'' - 47°$

A	
B	
C	
D	

Kontuan hartu

Kenketa egitean unitate-ordenaren bat falta bada, zeroak ipintzen dira ordez.

$35° \ 22'' - 28° \ 16' \ 35''$

$$\begin{array}{r} 35° \ 00' \ 22'' \\ -\ 28° \ 16' \ 35'' \\ \hline \end{array}$$

Gero, behar diren unitate-aldaketak egiten dira.

$$\begin{array}{r} 34° \ 60' \ 22'' \\ -\ 28° \ 16' \ 35'' \\ \hline \end{array}$$

$$\downarrow$$

$$\begin{array}{r} 34° \ 59' \ 82'' \\ -\ 28° \ 16' \ 35'' \\ \hline 06° \ 43' \ 47'' \end{array}$$

7 Zer neurri du $\hat{F}$ angeluak?



$\hat{D} = 136°$

$\hat{E} = 57° \ 25''$

PROBLEMAK EGIN

8 Zer angeluko biraketa egin behar du suhiltzaileak bigarren sura heltzeko?



$\hat{B} = 86° \ 30'$

$\hat{C} = 28° \ 50''$